

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

MAILOPE

257

2018ko apirila

TOKIKOM



GEROZ ETA
ETXEBIZITZA HUTS
GEHIAGO LARRAUNEN

MUGARIK GABEKO EUSKARA. OFIZIALTASUNA!

Mugak besterik ez. Gure berezko hizkuntza euskarak muga amaiezinak ditu berreskuratzeko, etorkizuna ziurtatua izango duen hizkuntza normalizatua izateko. Euskaldunok egunero pairatzen ditugu bigarren mailako hiztun izatearen mugak. Gure hizkuntza-eskubideak bigarren mailakoak dira, erdal hiztunen hizkuntza-eskubideekiko subalternitatean. Izan ere, euskaraz bizi nahia hitzez eta ekintzez mila modutara adierazi dugun arren, euskaldunok egunero-egunero entzuten ditugu "En español, por favor" edo "En français, s'il vous plaît" esaldiak, arbitroak txartel gorria aterako digunaren mehatxupean.

Hiztun-komunitate gisa ere desegituratu egin gaituzte. Euskaraz sortu eta birsortu daitekeen komunitate osoa izan ordez, hiztun-irletan sakabanatuta aurkitzen gara. Hatsa hartu eta biziraun ahal izateko arnas-guneen bila irla batetik bestera. Baita herri gisa ere, Euskal Herri gisa, euskaraz normaltasunez bizitzea debekatzen zaigu. Ezin dugu euskararen hiztun-komunitatea egituratu eta ezin dugu erabaki zein nolako hizkuntza-antolaketa izan nahi dugun.

Bana bizi dugun negu amaiezin honetan bezala, ekaitzak bata bestearen atzetik datoz. Kasu honetan euskara eta euskaldunon aurkako ekaitz amaiezinak. Frantziar eta Espainiar estatuetakotako botereak ez daude prest euskaldunok Euskal Herri euskalduna eraiki dezagun uztera. Frantziar estatuak, frantxi-mankeria errepublikar tradizio onenean, argi adierazi berri du: Frantziako hizkuntza ofizial bakarra frantsesa izango da. Euskara folklore eta lagunarteko hizkuntza da, eta horrela izaten jarraituko du. Espainiar estatuak, bide beretik, nahiko dela erabaki du. Azken 40 urteetan "hizkuntz erregionalekin" izan duen "eskuzabaltasuna" eskuetatik doakiola ondorioztatzen hasia da. Horregatik, orain katalan hizkuntz eta herriarekin egiten ari den bezala, lehenago ala beranduago 155 artikulua euskararekin ere deklinatuko du.

Errealitatea hori izanda ere, XXII. mendea jaiotzen ikusiko duten ehunka gutxiren arteko hizkuntzetako bat euskara izan dadin erabaki irmoa hartu dugu euskaltzaleok. Jakitun gara ez dela nolana hiko erabakia. Baina azken hamarkadetan aurreratzeari lortutakoa ez dugu alferrik galtzen utziko. Irabazpidean jarri eta abiatutako bidea bururaino eramateko konpromisoa dugu. Geldiezina zirudien euskararen atzerantzko joera gelditzea lortu dugu. Eta horrek euskaltzaleak animoz berrindartu

behar gaitu. Ez da makala lortutakoa, baina ez da nahikoa. Jauzi kuantitatibo eta kualitatibo emateko beharra dugu eta horretarako baldintzak daude. Hori lortzeko ezinbestekoak izango dira euskaltzaleon grina eta ekimena. Euskaldunoi ezartzen zaizkigun mugak gainditzeko unea dugu. Ipar dugun Euskal Herri euskalduna irabazteko unea dugu.

Baina, euskaraz izango gara ala ez gara izango. Euskarak egiten gaitu euskaldun. Euskarak egiten gaitu herri. Euskararik gabe ez dago euskararen herririk, ez dago Euskal Herririk. Horregatik ozen diogu: Euskal Herria euskaratik eta euskaraz eraiki beharra dago. Euskal Herriaren alde daudela dioten eragile politiko, sozial eta ekonomikei exijitzen diegu euskara euren jardueren erdigunean kokatzea.

Baina hau guztia bere osotasunean garatu ahal izateko ezinbesteko faktore bat dago: burujabetza. Burujabetza zein nolako hizkuntza-politika garatu nahi dugun erabaki eta indarrean jarri ahal izateko. Burujabetza inolako mugarik gabe euskaraz bizi ahal izateko. Burujabetza Euskal Herriaren berreskalduntzea azkartu eta bururaino eraman ahal izateko. Burujabetza kolektiboa herri gisa eta burujabetza indibiduala euskaldun aktibo gisa.

Zoritxarrez, historiak zein azken garaian erakutsitako jarrekeri argi adierazten digute estatuak ez daudela prest hala edo hola euskal herritarroei hizkuntzaren gaineko burujabetza osoa emateko. Horri aurre egiteko euskaltzaleok ez dugu beste irtenbiderik: ahalduntzea eta desobediencia. Desobediencia ariketa erraldoia egiteko unea dugu. Hasteko, euskaraz bizitzea da euskaldunok egin dezakegun lehen desobediencia-ekintza.

Horrekin batera euskararen borroka herriz herri eta auzo auzo biderkatzea ezinbestekoa da. Bai, borroka. Euskararen borroka. XXI. mendean euskarak bizirik badirau urteetan egindako borrokari esker izan da. Euskal Herriaren berreskalduntze osora iristeko euskaltzaleok jarraitu beharko dugun borroka.

Etorkizuna euskarari. Euskaraz bizi ahal izatea euskaldunok. Euskaraz normaltasunez biziko den eta osoki egituratutako hiztun-komunitatea. Euskal Herri euskaldun burujabea.

Euskal Herrian Euskarazeko kideak



ekin
rotulación
948 85 32 79



SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



FISIOTERAPIA
Andoni Ayerdi Olascoaga
609 536 002 · 948 604 789
Iturririk kalea 7, 31870 Lekunberri
andoniaofisioterapia@gmail.com



CARPINTERIA Hnos. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefona eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriazpiroz.com



OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza



04 ESKOLATIK MAILOPERA

05 BERTSO BERRIAK: Mikel Huarte

06 ELKARRIZKETA: Amavirreko langileak

09 NOR DA NOR?

10 MOKOKA

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA: Geroz eta etxe huts gehiago Larraunen

20 KULTURA

22 ELKARRIZKETATXOA: losune Zabala

24 KIROLA

26 OREKA OSASUNTSUA

28 PLAZATIK PLAZARA: Ibarberriko ikas komunitatea.

30 KONTU TXIKIAK

• **MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzeta eta Uztegi.

• **ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• **ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• **ARGAZKIAK:**

Labrit, Juan Antonio Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Ibarberri ikastetxea, Lontxin Zubillaga, Agustin Saralegi, losune Zabala, Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Unai Ijurko eta Mikel Azpirotz.

• **PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• **MAKETAZIOA:** Eneko Napal.

• **TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

IBARBERRI



eskolatik mailopera

Txotxongiloen etxean, Tolosan

Pasa den otsailaren 26an, hirugarren eta laugarren mailako ikasle guztiak Topicen izan ginen. Topic txotxongiloen etxea da. Tolosan dago. Gu autobusez joan ginen goizean goiz eta han gauza asko egin genituen.

Lehenbizi ikuskizun bat ikusi genuen. Antzezleek puxikekin pertsonaiak egiten eta dantzan jartzen zituzten. Antzezleak Galiziatik etorriak ziren eta gauza harrigarriak egiten zituzten!

Han Mariona ezagutu genuen. Tolosako txotxongiloa da Mariona. Bere etxean sartu ginenean, telefonoz hitz egin zigun. Gutako batzuei beldur pixka bat eman zigun Marionak, estralurtar bat ematen zuelako. Beste batzuei asko gustatu zitzaigun bere

ilea. Marionarekin hitz egin eta gero, bere lagun pilo ezagutu genuen, kontinente eta herri ezberdinetako txotxongiloak. Adibidez, errusiarrak, Andaluziakoak, estatubatuarak, Tailandiakoak, Brasilgoak, Malikoak, Turkiakoak, Irangoak... B612 asteroideko Printze Txikia ere han zegoen.

Txotxongilo batzuk ere egin genituen guk. Izen bereziak jarri genizkien: Margarita, Mel, Pelusin, Mukizu, Banpi... Eta bizia eman genien! Pentsa, haietako bi, Banpi eta Doremi, ezkondu egin ziren.

Ederki pasa genuen Tolosan. Benetan, Topicera joatea merezi du.

Marian, Alain I, Judith, Lorea, Moira, Uxue, Oier eta Joane.



**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDEGOXO JATETXEA

*Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak*

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



ALTSASU MARTXAN

Altsasuko gazteen gurasoek elkartasun martxa bati ekin diote gazteen kasuari buruzko informazioa eskaintzeko. Joan den martxoaren 10ean, Altsasutik Beraraino joan ziren eta tartean Lekunberrin, Leitzan, Mugairin, Elizondon eta Baigorriin izan ziren. Lekunberrin auto ilara egin zuten 50 auto baino gehiagorekin eta plazan elkarretartzea egin ondoren Leitzaraino jarraitu zuen ilarak.



GARAIA DA!

Joan den hilean Aralar Udal Musika Eskolak "Garaia da" ikuskizuna eskaini zuen Lekunberriko Plazaola kiroldegian. Eskualdean eta eskolak gainerako udalerrietan dituen abesbatza taldeetako ikasleek antzerkiarekin eta abesti berri-zaileekin osatutako kontzertua izan zen.



IRAKURLE BERRIAK

Beti da pozgarria hilabetero irakurle berriak ditugula ezagutzea. Horra hor hilabete honetan iritsi zaigun argazkia. Lekunberriko Aratz Etxarrik urte eta erdi baino ez du eta dagoeneko Mailope jakin-min handiarekin hartzen du etxean.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Mikel Huarte (Baraibar)

**Aste santu ondoren
aberri eguna**
euskaldun guztientzat
da ospakizuna
estatuaren jarrera
dugu ezaguna
gero ta indartsugo
gure erantzuna.

Agudo izanen da
ametsa **eguna**
urte luze askotan
bilatu **duguna**
lortuko dugu bai
gure **askatasuna**
jorratu beharko da
gure-**elkartasuna**

Doinua: Durangotik gora

Joanarentzako puntua:

Bardoak pasa eta badugu zer egin.

Oinak:

Jakina, grina, egina, ezina.



Parlamentarien bitartekaritzaren emaitzen esperoan daude Amavir Beteluko langileak

Martxoaren 16an Gizarte Politiken Batzordeko zenbait parlamentarik Beteluko Amavir egoitza bisitatu zuten eta gatazkan inplikaturik dauden alderdi guztiekin bilera egin zuten. Gainera, joan den hilabetean zehar hainbat lanuzte egin zituzten langileak.

Nerea Navarro, langileen ordezkariak eta Gaizka Uharte LABeko ordezkariak parlamentariekin mintzatzeko aukera izan zuten.
Arg: J.A. Garaikoetxea.

Otsailean Nafarroako Parlamentuan izan ziren Beteluko Amavir egoitzako langileak. Euren egoera aldatzen ez dela ikusita eta enpresaren aldetik inolako erantzunik jasotzen ez dutela ikusita Parlamentura jotzea erabaki zuten urte hasieran. Agerraldi horren ondotik, Geroa Baik, EH Bilduk eta Podemos-Ahal Duguk eskatuta egoitzara bisita egin zuten martxoaren 16an langileek salatzen duten egoera gertutik ezagutzeko. Bertan izan ziren EH Bilduko Asun Fernandez de Garaialde, Geroa Baike Virginia Aleman, Podemos-Ahal Duguko Fanny Carrillo, PSNko Conchi Ruiz eta PPko Carmen Segura. Egoitza kudeatzen duen enpresako zuzendaritzarekin, Beteluko udal ordezkariarekin eta langileen ordezkariarekin bilera izan zuten bertan, alde guztien iritzia jasotzeko.

Amavir enpresako zuzendaritzak iaz egoitzaren itxiera saihesteko 1,76 milioi euroko inbertsioa egin zuela

azaldu zuen eta langileei aurkeztutako hitzarmen proposamena baztertu eta epaitegietara jo izana leporatu zien. Langileek euren aldetik, estatu mailako hitzarmena aplikatuz geroztik aldarrikatzen duten berdina eskatzen jarraitzen dute, Amavir enpresako gainerako egoitzetan dituzten lan-baldintza berdinak izatea. Gainerako langileek baino %13 gutxiago irabazten baitute ehun ordu gehiago lan eginez.

Amavir enpresako zuzendaritzak egoitza bideragarria izateko irtenbide bakarra egoitzan dauden 45 plazak itunduak izatea dela adierazi zion Nafarroako Gobernuari. Eta Gobernuko ordezkariak ez dituzte plazak itundutako langileen baldintzak berdintzen ez baditu. Gaur egun 25 dira egoitzan itundurik dauden oheak.

Langileek bilera horren emaitzen esperoan jarraitzen dute, konponbide baten zain eta bien bitartean martxoan zehar lanuzteak egin zituzten hainbat asteburutan zehar. Egoitzaren atarian egindako ordubeteko elkarretaratze horietan sinadurak bildu zituzten eta herritarren babesak jaso zuten. Bisitaren ondotik, egoitzako langileen ordezkaria den Nerea Navarrok izan ginen.

Parlamentuan egindako agerraldiak zenbait fruitu eman ditu Nerea...

Parlamentuan gure egoeraren berri eman genuen eta agerraldiaren ondotik, Podemos-Ahal Dugu eta EH Bilduko ordezkariarekin izan ginen eta egoitza bisitatzeko proposamena egin ziguten eta gatazkan inplikaturik gauden alderdi guztiekin elkartzeko eskaera bideratuko zutela esan ziguten. Guk urteak daramatzagu enpresarekin eseri nahian eta baiezkoa eman genien pentsatu ere egin gabe.



*“Nafarroako Gobernuak
ohe Itundun horiek
ematea espero dugu eta
guri baldintzak berdintzea”*

*“Urteak
daramatzagu
enpresarekin
eseri nahian”*

Eta zer moduz joan zen bilera?

Lehenik enpresako zuzendaritza Parlamentuko ordezkarekin elkartu zen, hori izan baitzen enpresak bilera egiteko jarritako baldintza, lehenik bakarka elkartzea. Ondoren gu batu ginen bilerara eta zuzendaritzak epaiketa galdu genuelako Parlamentera jo izana leporatu zigun. Guk azaldu genien, gure proposamena aurkeztu geniela, eta eurekin elkartzeko saiakerak egin ditugula, hiru urte hauetan kontu ekonomikoak ere eskatzen ibili garela eta ez dugula inolako erantzunik jaso. Horregatik jo genuela Parlamentera eta eskura ditugun bide guztiak erabiliko ditugula egoerari konponbidea aurkitzeko.

Martxoan amaitzen da Nafarroako Gobernuarekin 25 ohe kontzertatzeko akordioa...

Bai. Enpresak momentua aprobeztatzeko egoitzako ohe guztiak itunduz gero, agian, gainerako egoitzetako langileen baldintza berdinetan lan egiteko aukera izango genukeela iradoki zuen. Horrek zenbait parlamentariaren haserrea piztu zuen. EH Bilduko Asun Fernandez de Garaialdek gobernuari xantaia egitea zela esan zion. Eta Geroa Baiko ordezkariak gurekin negoziatzera eseri ez izana aurpegiatu zion enpresari, euren hitzarmena ez onartzeagatik eta epaitegietara jo izanagatik zigortzen ariko bagintuzte bezala. Azkenean, Gobernuak gure baldintzak berdindu ezean ez duela plaza itundurik emango esan zigun. Eta



Itundutako 25 ohe daude egun Beteluko egoitzan. Nafarroako Gobernuak langileen baldintzak berdintzeko baldintza jarri dio enpresari oheak kontzertatzea nahi badu.
Arg: J.A. Garaikoetxea



orain erabakiaren zain gaude. Gizarte Ongizatearen departamentuarekin biltzeko eskaria ere egin dugu.

Enpresari aurkeztutako hitzarmen proposamenaren erantzunik ez duzue jaso?

Ez, ez digute ezer erantzun. Parlamentura jo eta hedabideetan gaia atera ez balitz ez genuen beraiekin elkartzeko aukerarik izango.

Zer espero duzue?

Nafarroako Gobernuak ohe itundu horiek ematea espero dugu eta guri baldintzak berdintzea. Nafarroako Gobernuak ez du egoitza publiko askirik eta horregatik ematen ditu ohe itundu horiek egoitza pribatuetan.

Lanuzteak ere egin dituzue...

Bai eta espero baino askoz ere jende gehiago hurbildu da. Ordubeteko lanuzteak egin ditugu asteburuetan, arratsaldean eta gure lanean eragina izatea baino zerbait sinbolikoa izan da egin duguna. Erabiltzaile guztiak behean dauden orduan egin genituen lanuzteak beraiek gehiegi ez nabaritzeko eta gehienbat egoera gizarteratzeko.

Eta jendearen erantzuna positiboa izan da...

Bai, ibarreko herritarren erantzuna oso ona izan da. Gure borrokarekin bat egiten dutela esan digute, ez zaiela normala iruditzen enpresa berean, lan



Langileek bat egin zuten martxoaren 8ko lanuztearekin eta herritarren babesa jaso zuten. Argazkia: A. Altuna.

berdina egiteagatik halako ezberdintasunak egotea gure lan-baldintzetan. Jende asko batu da lanuztera eta hori eskertzekoa da!

Martxoaren 8an ere bat egin zuten ibarrean egin zen elkarretartzearekin...

Bai, oso hunkigarria izan zen guretzat. Babesturik sentitu gara azken hilabete honetan.

Eta sinadurak biltzen ere ibili zarete, ezta?

Bai. Gure asmoa Gizarte Ongizatearen departamentuan aurkeztea da. Espero baino sinadura gehiago biltzen ari gara. Batez ere, lanuzteetan egindako elkarretaratze horietan bildu ditugu eta egoitzako erabiltzaile zenbaitek eta euren senideek ere bat egin dute gurekin. Azkenean, eurek ere euren beldurrak dituzte, egoitza itxiko den beldur edo zerbitzua aldatuko denaren beldur. Bakoitzak geure beldurrak ditugu azken batean. Ikusiko dugu joan den hilabete honek zer dakarren...

Zaindu maite duzun hori

Denok behar dugu gure bizitzaren tarteren batean beste norbaitek zaintzea. Jaio orduko, gaixoaldietan, bizitzaren azken urteetan. Ezinbesteko betebeharrak bat da zaintzea. Baina gaizki baloratu den eginbeharra izan da.

Egoera hori Beteluko zaharren egoitzan bertan gertatzen dela salatu dute hango langileek. Emakumeak dira gehienak, eta Betelukoak, edo ibarrekoak bestela. Gauetan, asteburuetan... egiten dute lan, baina hala ere, ez dira iristen enpresa berak Nafarroan dauzkan antzeko beste egoitzen soldatetara; mila eurotik behera kobratzen dutela salatu dute.

Langile hauek ez dira ari fabrika bateko makina hotz eta bizigabe bat zaintzen; pertsonak zaintzen dituzte, eta urte

asko eta arazo fisiko dezente dauzkaten (gure) bizilagunak dira. Beren bizitzaren azken urteetan goxo eta ondo zaintzea merezi duten herritarrek.

Bai zaharrendik bai langileengatik, mereziko luke zaharren egoitzako lan baldintzak hobetzea. Beteluko herriak irabaziko luke gehien adineko pertsonak, langileak, emakumeak... ongi zaintzen ditugula erakutsiz gero. Horretarako, ezinbestekoa da bakoitzak dagokion erantzukizuna hartzea, eta ez uztea emakumeen bizkar zaharren ongizatea.

Ainhua Oartzabal Azketa (Betelu)

Nor da Nor?



Aurreko alean kaleratutako argazkia Beteluko Labainean ateratakoa da, garai bateko Musika Eskolan. Ezkerretik eskuinera: Xabi Galartza, Miren Zabala eta Asier Elordi.

nor da nor?

Nor da Nor?



Nortzuk azaltzen dira argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

IORTIA DENTICA DENTAL - HORTZ-KURBIA
Juanjo Gaite Garcia · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 - 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

SK **SUAKONTROL LEKUNBERRI**
Suaren kontrako plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

Futbolaren gabeziak



●● Mikel Hernandorena

Iepa Pello! Zer moduz dena? Lehengoan egunkarian kirol albisteak irakurtzen ari nintzela, berri harrigarri bezain triste batekin topatu nintzen: Futboleko Nafarroako Kirol Jokoetako Jubenilen Bigarren Mailako partida batean, San Jorge eta Zizur B taldeen artekoa, azken emaitza (2-2), bi taldeen artean adostu omen zuten. Hala ere, Nafarroako Kirol Federazioko Batzordeak bi taldeetan zerikusia izan zuten arduradunei eta bi taldeei zigorrak jarri arren, oraindik ere ezin daiteke ziurtzat eman benetan horrela izan zenik, bi taldeak ez daudelako ados erabaki honekin eta Apelazioko Komitearen aurrean helegitea jarriko dutelako, Nafarroako *Diario de Noticias*en azpimarratzen zen bezala.

Hala ere, berez formazioa helburu duen kategoria batean horrelako berriak entzutea ez da oso albiste ona. Transmittitu nahi diren balio onei erreparatuz gero, gezurra inora ez doala uste dudalako. Kasu honetan, futboleko kasu horrelako kasu bat gertatu dela ematen du, eta hala balitz, horrelako kasu gehiago ez gertatzeko gaitz hau errotik kendu beharko litzatekeela uste dut. Arrazismoa, bortizkeria... kirolean errotik ezabatu behar diren bezala, jokoaren garbitasuna ere oso kontuan hartu behar dela iruditzen zait.

Gorago joaten bagara, mundu profesionalen izandako ustelkeria eta partiden erosketak kasu asko entzun izan ditugu. Hala bada, tristea izango litzateke errealitate hau formazioa oinarritzat duen kirolera iristea.

Erakundeak, kirolaren mundua... errealitate gordin honetan gehiago murgildu beharko liratekeela uste dut, nahiz eta askotan oso zaila izaten den hau kontrolatzea. Zuk nola ikusten duzu gaia, Pello? Hurren arte!



●● Pello Azpirotz

Kaixo Mikel!!! Udaberrian sartu gara eta nabari da jendearen aldarrean. Ni gogotsu nabil, hori bai aurtengo ikasturtea bukatzeko gogoak badut hurrengo urtean praktikak baititut. Futboleko ere ustelkeria badago eta burura etorri zaizkit Osasunako agintaritzak probestuz batzuek egin zituzten lapurretak. Eta horiek izebergaren punta direla uste dut. Onartezina da eta oraindik gutxiago zuk aipatu dituzun maila horietan, gaztetxoaren artean. Egia esan maila horietan gorrotagarriak diren jarrera ugari ikus ditzakegu bai umeen, entrenatzaileen eta gurasoen aldetik. Lehiakortasunaren ondorioetako bat ere badela uste dut batzuetan. Oinarritzakoa ahazten zaigu: Haurrek bertan ongi pasa beharko lukete, balio desberdinak ikasi, elkar errespetatu... Irabazteak gutxienezkoa izan behar du eta uste dut gurasoek pisu handia dutela bertan. Askok uste dute Messi bat aterako zaiela eta garrantzitsuena ahazten zaie, haurrek modu garbian jolastuz gozatu behar dute.

Noski horretarako erakundeek, kirolaren munduko ikurrek... modu askoz serio eta eraginkoragoan esku hartu beharko lukete, eta lan asko izango lukete aurretik. Eta zalantza daukat ea egiazko nahia duten horretako agintariek. Noski jendearen kontzientziazioa ere funtsezkoa izan beharko litzateke. Txikitatik, errotik moztu behar den zerbait da.

Hala ere, ustelkeria gizarteko alderdi askotan antzeman daitekeen fenomeno bat da. Etengabe ateratzen ari dira ustelkeria kasuak, jada normalizatutako zerbaitetan bihurtzen ari dira. Denbora gutxiago pasatzen duzu kartzelan (edo agian ez duzu kartzela zapaldu ere egiten) dirua lapurtzeagatik (PP-ko kasu ugari datozkit burura...), hautestontzi batzuk jartzeagatik, tuit batzuk idazteagatik... baino. Bada garaia benetan honekin bukatzeko eta horretarako kontzientziazioa eta mobilizazioa ezinbestekoak dira. Hurren arte, ongi ibili!!!



**PERTSONA BAKOITZAREN ATZEAN ISTORIO BAT DAGO.
AURREAN, ASKOZ GEHIAGO EGON DAITEZKE.**



**Egun, nagusitzea nork bere burua zaintzea, aktibatzea eta berriro maitemintzea da.
Ezagutzea da, eskubideez hitz egitea, amets berriak eraikitzea...**

ADINEKOAK POSITIBOAN

MARTXOAREN 8AN, EMAKUMEOK PLANTO!

Martxoaren 8ko grebak jarraipen handia izan zuen gurean ere. Emakumeen Nazioarteko Egunean, herritar asko, batez ere emakumezkoak, kalera irten ziren berdintasun eskubidea eta gizarte eredu parekide bat aldarrikatzeko. Zenbaitek egun osoko greba egin bazuen ere, emakumezko askok ezin izan zuten, baina sindikatu, erakunde eta eragileek deitutako geldialdietan parte hartu zuten. Larraunen, Lekunberriko udaletxe aurrean inoiz baino kuadrilla handiagoa elkartu zen eta ondoren batzuek Mendukilo kobara bisita berezia egin zuten. Araitz eta Betelun ere kaleira irten ziren. Bertan, Amavir egoitzako langileen borrokarekin bat egin zuten. Bai batean eta bai bestean, izan ziren euren etxeetan edo lantokietan gelditu arren, amantalak eta oihal moreak leihoetan zintzilikatuz euren aldarria egin zutenak.

Araitz eta Betelun jendetza elkartu zen martxoaren 8ko lanuztean.
Arg: A. Altuna.



SAGARDOTEGIAREN FALTAN, BETELUKO BARRIKOTEA



55 inguru elkartu ziren joan den hilean Beteluko ostatuan egindako barrikotean. Sagardotegiko menua afaldu zuten eta txotx eta txotx artean tritilariekin girotu zuten gaua.

IPUIN GOZOAK

Bost eta zazpi urte bitarteko haurrei zuzendutako ipuin kontalari saioa antolatu du Euskara Batzordeak. Bina saio izanen dira, lehena apirilaren 9an eta bigarrena apirilaren 23an, arratsaldeko 16:30etik 18:00etara. Virginia Albira eta Lur Korta ipuin kontalariak ipuinak kontatuko dizkiete eta saioaren erdian etenaldia eginen da txokolatzeko ogitartekoa jateko. Saioaren sarrera euro batekoa izanen da eta gurasoak ezinen dira bertan egon.

ELIKADURA KATEKO PARTE-HARTZAILEENTZAKO FORMAZIO SAIOAK

Elikadura katean parte hartzen duten ekoizle ostalari eta saltzaileei zuzendutako formazio saioak eskainiko ditu Cederna Garalur Elkarteak. Apirilaren 15ean, Legedi Higieniko sanitarioaren malgutasuna eta salmenta zuzenaren legeari buruzko tailerra emanen dute EHNEko kide diren Mirian Otxotorena eta David Ruizek. Saioa bazkalondoko 15:30ean izanen da Leitzako udaletxean.

Bestetik, maiatzaren 3an, arratsaldeko 16:30ean, salmenta bide laburrei buruzko formazioa eskainiko du Miren Begiristainek. Saio hori ere Leitzako udaletxean izanen da.

Saio hauetan parte hartzeko beharrezkoa izanen da aurrez izen ematea "bertakoproduktuakleitz@gmail.com" e-postaren bitartez.



16 BIKOTEK PARTE HARTU ZUTEN SATORZULOKO V. FRONTENIS TXAPELKETAN

Martxoaren 24an, goizetik hasita jokatu ziren Satorzuloko V. Frontenis Txapelketako partidak. Guztira, 16 bikotek parte hartu zuten, bertakoak nahiz kanpotik etorritakoak. Aurtengoan, Xabi Romero eta Odei Arregi tolosarrek eraman zuten txapela Burgostik eta Piti-Illastik etorritako Eloy Enbe eta Jose Ángel Claveriaren kontra irabazitako finalean.

APIRILEAN IREKIKO DUTE LEKUNBERRI ETA LARRAUNGO OSASUN ETXEA

Azkeneko hilabete hauetan Lekunberri eta Larraungo osasun etxeko eraikina berritzen ibili dira eta bien bitartean osasun zerbitzuak aurki Larraungo udal-etxea izanen den eraikinean eskaini dituzte. Osasun etxe berrian egin den igogailuaren instalazioak lanak behar baino gehiago luzatu dituen arren, udal ordezkariak bertako ateak hilabete honetan irekitzea aurreikusten dute. Osasun etxe berrian orain arteko zerbitzuak ia bikoiztu egingo dira eta mediku, erizaintza eta pediatria zerbitzuez gain, errehabilitazio zerbitzua ere eskainiko da.

“ETORKIZUNA NAFARRON ESKU” AURKEZPEN EKITALDIA IZANEN DA APIRILAREN 22AN ARRIBEN

Araitz eta Beteluko Gure Esku Dago taldeak “Etorbizuna nafarron esku” ekitaldia antolatu du apirilaren 22rako. Eguraldi ona izanez gero, Arribeko plazan izanen da eta bestela Arribeko eta Atalluko frontoian egingen dute. Taldearen asmoa Gure Esku Dago ekimenak 2018. urte honetarako aurreikusitako ekintzen berri ematea da. “Goizez izanen da, eta ekintza sorpresaren bat ere izanen da jatekoaz eta musikaz gainera”. Izan ere, joan den hilean Nafarroako Gure Esku Dagok egindako aurkezpenean, bi egitasmo aurkeztu zituen. Maiatzaren 19an, Iruñeko Gazteluko plaza Mosaiko koloretsu bat osatuko dute eta ekainaren 10ean giza-katea egingen da.



Iribasko bizilagunek pozez hartu dute Martiko-Berriren irekiera. Arg: Labrit.



BI AUKERA GASTRONOMIKO BERRI ESKUALDEAN

Zenbait hilabetez itxita egon ondoren, amaitu dituzte Arribeko Mikel Deuna jatetxeko berritze lanak. Joan den hilean egin zuten irekiera festa eta bertaratu zirenek guztiz aldatu aurkitu zuten lokala. Bestetik, Iribasen, Martiko jatetxea ere zabalik dago. Martiko-Ber-

rrin hemendik aurrera sagardotegiko hiru menu, menu alemana eta dastatzeko menu bat eskainiko dute, pintxoez eta ogitartekoez gainera. Beraz, beste bi proposamen hauekin ez dago aitzakiarik bertatik bertara otordu eder bat ez egiteko!

Pazifismoa buru-hiltzea denean

2030. urteko udaberria. Sistema tekno-industrialia due-la urte bat suntsitu zela, baina zu eta zure lagunak ondo zaudete. Baratzean dituzun begetalak ondo hazi dira udaran eta zeuen egurrezko etxetxoan janari probisio onak dituzue, gainera jaki aunitz dituzue hurrengo negua pasatzeko. Justu orain pataten uzta jasotzen ari zarete. Zuen aitzurrekin zeure lagunak eta zu banan-banan patatak ateratzen ari zarete eta lurretik hartzen dituzue tuberkulu mamitsuak.

Bat-batean, lagun batek ukondoko bat jotzen dizu eta begirada altxatzen duzu. O-o! Kuadrilla maltzur bat datorrela dirudi. Armatuak daude. Arazoak edukiko dituzuela dirudi, baina tinko mantentzen zara. Kuadrilla-ko liderra gerturutzen da eta esaten dizu:

- "Itxura ona dute hor dituzuen patata horiek".
- Baietz erantzuten duzu, "itxura oneko patatak dira".
- "Hartu egingo ditugu" dio liderrak.
- "Ezta pentsatu ere!" erantzuten duzu. "Uda gogorra igaro dugu patata hauek lortzeko".

Kuadrillako liderrak bere armarekin apuntatzen zaitu eta esaten dizu: "Memelo hori!". Bere kideei abisatzen die, "Jimmy, ikusi zer duten etxean eta ikusi ea janaria duten. Hemen pasa dezakegu negua. Mick, hartu urdanga hori ihes egin baino lehen. Ipurdi polita du. Gaur gauean larrutan egingo dugu".

Oso haserre garrasika hasten zara: "Putaseme hori! ezin duzu...".

Pistolak BANG egiten du. Hilda zaude.

Indarkeria ezak, babesteko polizia dagoenean funtzionatzen du bakarrik. Poliziarik gabe biolentzia ezak, buru-hiltzea suposatzen du. Badakit hau ez dela horrela izan historian zehar leku askotan. Colin Turnbullek ondo azaltzen duen bezala pigmeo afrikarrek gizakien arteko biolentzia mortala ia ezagutezina zen. Beste gizarte nomada ehiztari/biltzaileetan, pertsonen artean hiltzen dira liskar baten ondorioz, baina ez dute beste lurralde bat konkistatzen edota sistematikoki hiltzen.

Baina errealistak izanez gero, ez dugu horrelako gizarterik heredatuko sistema tekno-industrialia erortzen denean. Jende maltzur asko dago hor barna; Naziak, Ku

Klux Klan, mafiak... eta beste askok talde ezezagunetan daudenak. Hauek ez dira desagertuko sistema erortzen denean, hor jarraituko dute. Gainera, seguruenik ez dute arrakastarik izango beraien elikagai propioak lantzeko, beraz, nahiago izango dute beste pertsona batzuen jakiak ostu (hilketak eta bortxaketak eragiten). Halaber, egungo egoeran baketsuak eta ongi hezitako pertsonak direnak, krudelak izan daitezke janari eskasia dagoenean eta landatzeko lur emankorren bila daudenean.

Egoera kaotiko eta nahasi honetan, batzuek lur hoberena lortzen saiatuko dira, beste batzuen kontra, horrela hil ala biziko borrokak sortuz. Honenbestez, prest egon behar duzu bai fisikoki bai psikologikoki. Dena dela, Naziak edo Ku Klux Klan bezalako taldeak ez dira arriskuetsuenak izango. Seguruenik ez dira gai izango efizienteak diren erakunde handiak sortzeko. Askoz ere arriskutsuagoak izango dira sistemaren zutabea osatzen duten pertsonak, beraien bizitza erakunde diziplinatuetan egokitzen direnak: "burgesak", bankariak, "Silicon Valley", militarrek, burokratak, lobbyak... Pertsona hauek irrikan daude ordena, antolakuntza eta sistema teknologikoa ahalik eta azkarrena berrezartzeko. Beraien metodologia seguruena ez da Naziarena bezain gordina izanen baina, ez dute zalantzarik edukiko biolentziaz baliatzeko beraien helburuak lortzeko. Prestatuta egon behar zara fisikoki pertsona hauengandik babesteko.



luze

Eraikuntza emozionala

Kaixo, irakurle! Askotan idatzi dudan gai baten bueltan idaztera noala iruditzen zait, hala ere, beti zerbait esateko bada honen inguruan. Araizko biztanle moduan hitz egingo dizuet gaur, Euskal Herriko biztanle orokor bat izan naitekeelarik. Garai zahar bat ezagutu nuela iruditzen zait, non Matxindoko Ramonen autoa (ciento... ez dakit zenbat bat) zen bikaina, handia, bere irrati-kasetearen zintak oraingo tableta baten adinakoak zirena, herriko kotxe bakarra ia. Begiak eta belarriak herrira be-

gira zeudena, oso giro zehatz eta itxira. Meza igandero eta telebistan kate bakarra. Gaur egun aldiz, ikus-entzunezkoz bada ere, mundura irekita gaudela dirudi, hau nola gertatzen den aztergai den arren bere horretan. Bidaiatzeko aukera, jendearekin harremanak izatea, giro ezberdinak ezagutzea... mundu anitz.

Lehen Gaintzan familiak ingurutara lotuak zeuden, barrutiak eta basoak behar zituzten animaliei janaria emateko, familia aurrera eramateko. Edozein inguruko

txoko ederki baloratua zen, jende gehiago bizi zen eta denen beharra zegoen. Herriak elkarrekin eta ingurukoe-kin izaten genituen harremanak, bertatik bertara. Gauza urri zen, kanpotik etorritako edozer gauza ederki balioan genuen (gogoan dut aitaren lehengusu batek ekarritako aurreneko ordenagailu zahar hura adibidez, edozein jostailu edo liburu).

Gauzaren eta aurrerapenaren iraultza etorri zen, lana, ondorioz dirua, ondorioz gauza. Nire gurasoen belau-naldia ongizate materialaren langile izan direla iruditzen

zait, hor jarri dute norabidea. Ingurua baliatuz batzuetan, fabriketara joanez besteetan, gauza izatea izan da lehen-tasun. Ezinbestekoa ongizate materiala, jatea, babesa edukitzea, arropa... la ezer ez edukitzetik, behar eta desio zen ia guztia izaterako pauso ikaragarria. Eta guk, etxean lan egin behar izaten genuen arren etxeko martxan zeozer gehitzeko, ikasteko aukera izan genuen, nahi izan genuen adina. Horretan ere, lortzeko gaitasun bikaina.

Munduaren ikuspuntu zabalagoak eta ikasi eta hausnartutako guztiak badu bere ondorioa. Bistakoa zen gizartea aldatuko zela, baina nola? Kultura globala sartu zen eta Rock-a, musika elektronikoa... kontsumoaren kultura, lana eta parranda. Edukitzea eta gastatzea, luxua eta plazerra. Gure aurrekoek lan pila egin dute gauzak eraikitzeke, guk "dena egina" jaso dugula diote sarri, dena eman digutela eta gastatzeko prest gaudela, norbaitek esango du arduragabe batzuk ere bagarela... Aldiz, uste dut gure hausnarketa doala lanaren prezioaren inguruan, zer behar denaren inguruan, ongi bizitzearen inguruan.

Uste dut gure garaiko erronka dela eraikuntza emozionala, inguruan dugun guztia nola baliatu benetan gustura sentitzeko. Zenbat behar dugun lan egin, zenbat elkarrekin egon, zenbat elkar gorrotatu eta zenbat elkar maitatu. Nire ustea da ez garela hau entzuten askotan geratu, ez dugula honetan hausnartu eta beharra dugula. Harremanak nola izaten ditugun, nola dibertitzen... Daukagun arrisku handi bat da kanpotik "erakutsitako" ereduak kopiaitzen jarraitzea (horrela egiten dugula uste dut irudian, kirolean, kontsumoan) eta guretzat osasuntsuak ez diren ereduak jarraitzea, batez ere pozik izatera bideratzen ez gaituztelako.

Eta ez naiz esaten ari pozik egun guztia barrezka egon behar genukeenik, baina bai hausnartzea zergatik ez nagoen ongi, zer den behar dudana benetan, zein balio ditudan nire barnean eta ea horiek mesede edo kalte egiten didaten. Mundu landu bat jaso dugun bezala, guk ere gurean lantzea da plana, lan hori, dena delakoa, ez da izango aurrekoak bezain beste aitzurrean, baina ari gara geurean. Hizketan, sortzen, pentsatzen, lantzen, adierazten, frogatzen... Animo eta aurrera ba eraikuntza emozionalean ere!



Larraungo etxebizitzaren %16 hutsik dago

Larraun Bizi taldeko kideak orain dela hiru urte jarri ziren martxan, Larraungo herrien gainbeherak kezkatuak. Ibarren etorkizuna ziurtatzeko enplegua, aisialdia, talde nortasuna, zerbitzuak eta etxebizitzaren arloan dihardute lanean. Larraungo etxe hutsen errola egin berri dute eta behin-behineko emaitzen arabera, ibarrean batez beste dauden etxebizitzaren %16 hutsi daude. Taldeko kide diren Josu Oreja, Rafa Etxarri, Pello Azpirotz eta Sugo Etxarriekin izan gara.

Geroz eta gehiago dira Larraungo herrietan hutsik gelditzen ari diren etxeak. Herri batzuen kasuan, biztanleen batez besteko adina kontuan hartuta epe labur edo ertainean desagertzeko egoeran egon daitezkeela uste dute *Larraun Biziko* kideek.

Herrietan bizitza mantentzeko gaizteak bertan gelditu beharko lukete edo kanpotik etorri, baina horretarako ezinbestekoa da etxebizitza bat erosi, eraiki edo alokatzeko aukera eskaintzea. "Etxebizitzaren gaia gure bileretan hasieratik agertu zen arazoa zen. Eztabaida guztiek etxebizi-

tzaren arazora eramaten gintuzten eta azkenean gaiari heltzea erabaki dugu. Gure herrien garapenerako bileran ildo ditugu, alde batetik baldintza fisikoak garatu behar ditugu, baldintza ekonomikoak, enplegua eta etxebizitza eta bestetik baldintza sozialak, talde nortasuna sendotu, eta bertan gustura bizitzeko eta bertan gelditzeko motibazioa sortu".

Abenduan egin zuten azkeneko Topa Larraun eta bertan bildu ziren eragileekin eta Kontzejuetako ordezkariekin batera pauso zehatz batzuk ematea adostu zuten. Azpirotz, Go-

rriti, Uitz, Baraibar, Errazkin, Alli eta Arruitzek bat egin zuten etxebizitza sustatzeko hartutako erabakiarekin eta beste zenbait ere interesaturik agertu dira. Larraunen dauden etxe hutsen errola egitea adostu zuten besteak beste. Ibarren etxebizitzaren gaiari buruzko ikuspuntu orokor bat izateko eta jakiteko etxe horiek zein egoeratan dauden. "Gure asmoa emaitza horiek Larraungo Udalean aurkeztea da eta ondoren zehaztu egin beharko da zein eredu nahiz dugun eta konpromiso zehatzak hartu beharko dira, bai bertako institu-



Larraungo herrien etorkizuna bermatzeko gakoetako bat etxebizitzaren gaiari heltzea dela uste du Larraun Bizi taldeak. Arg: J.A. Garaikoetxea.

Sugoi Etxarrik, Pello Azpirozek,
Josu Orejak eta Rafa Etxarrik
dihardute besteak beste Larraun
Bizi taldean. Arg: Labrit.

zioen aldetik eta baita Nafarroako Gobernuaren aldetik ere. Argi dago halako arazo bati ezin diogula guk bakarrik aurre egin eta Nafarroako Gobernuaren ardura ere bada nola-bait geografia soziala mantentzea”.

Erroldaren behin betiko datuak oraindik ixteke dituzten arren, behin-behineko emaitzen arabera, Larraungo herriek 31 etxe eta 38 etxebizitza dituzte batez beste. Gaur egun, etxebizitzaren %57 beterik dago, aldiz %16 hutsik. %21 bigarren etxebizitzak dira eta %6k bestelako erabilera dituzte. Horiek gaur egungo datuak dira, baina beste hamar urtetan etxebizitzaren beste %10 hustu daitezkeela uste dute *Larraun Biziko* kideek. Etxe horiek saltzeko prest dagoen jendea baden arren, bestelako hamaika arrazoiengatik salgai jartzen ez duten kasu asko daude. “Interlokuzioa da behar dena. Larraungo hirigintza planean biltzen diren eskakizunak ere oso hertsia dira. Kontraesan asko daude eta ez dago egokituta errealitatean”.

Larraungo hirigintza plana zahar- kiturik daukagula uste duzue?

Rafa: Hala ematen du. Azkeneko topaketak kontzejuetako lehendakariekin egindako gogoeta hori izan zen. Bere garaian neurri murriztaileak hartu ziren ondarea ongi mantentzeko eta espekulazioa ekiditeko helburuarekin. Bi helburu horiek mantendu behar ditugula argi dago, izugarriko ondarea dugulako eta hori mantendu egin behar dugulako alde batetik eta bestetik herrietan ez ditugulako behar izugarriko urbanizazioak asteburuetan etorriko den jendearentzat. Bertan biziko den jendea behar dugu. Beraz, helburu horiek mantendu behar dira, baina bestelako formulak aurkitu behar di-



*“Oraindik, pertsona batzuek,
oso mentalitate kontserbadorea dute
eta nahiago dute ondare horri eutsi
beste bati saldu baino”*

tugu hemen gelditu nahi duen horri erraztasunak emateko, eta gaur egun garestia eta zaila da bertan gelditzea.

Zein zailtasun ditu gaur egun per- sona batek bertan etxebizitza bat berritzeko edo etxebizitza berri bat eraikitzeko?

Josu: Metro karratu kopuru zehatz bat exijitzen da, ezin da solairu bakarreko etxerik eraiki, materialak ere mugaturik daude.

Sugoi: Lurraren prezioa ere garestia da eta jendeak saldu nahi izatea ez da erraza, azken batean, lur gehienek euren jabea dute.

Oraindik ere, erabili ez arren onda- re familiarrari belaunaldiz belau-

naldi eusteko joera dagoela ikus- ten duzue?

Josu: Bai, oraindik batzuek oso mentalitate kontserbadorea dute eta nahiago dute ondare horri eutsi beste bati saldu baino, nahiz eta erortzearen egon. Etxe gehienak pribatuak dira, baina agian posible da interlokuzio baten bitartez Larraungo Udalak bere beharrak transmititzea eta jendearengan kontzientzia sortzea. Herriak husten ari zaizkigulako eta beharrezkoa delako etxeak mugimenduan jartzea. Eta ziur badela jendea akordio batera iristeko prest.

Rafa: Konponbidea inplikaturik gauden guztion artean adostu behar da, kontua da orain arte ez zaiola gaiari heldu. Baina etxeak erortzen ari dira,

lur sozialik ez dago eta gazte askok herrietatik alde egin behar dute ez dutelako aukerarik bertan gelditzeko.

Sugoi: Gaia gizarteratu egin nahi dugu, jendea ohartarazteko eta lanean hasteko.

Ikerketa soziologiko bat egitea ere aurreikusten duzue...

Josu: Soziologo aditu bati aurrekontua eskatu diogu Larraunen ikerketa soziologiko bat egin, besteak beste ditugun hutsuneak eta gakoak aurkitzeko. Ibarrean gaur egun dauden joeren zergatia argituko liguke eta garapenaren bidea erraztuko liguke. Dena den momentuz gelditu daukagu kontu hori. Aurrekontua Larraungo Udalean aurkeztu genuen eta oraingoz behintzat atzera bota dute. Erroldaren behin betiko datuak Udalean aurkeztea da orain gure asmoa.

Rafa: Denon artean ekin behar diogu erronkari, interes politikoak eta ideologikoak alde batera utzita. Baina borondatea ezinbestekoa da, bestela herri hauek desagertu egingo dira.

Kalean, jendeak kezka hori baduela uste duzue?

Josu: Bai, larraundarrak sentitzen direnen artean bada azpian halako kezka bat. Denek ikusten dute arazoa, ikusten dute herrietan geroz eta bizilagun gutxiago daudela, etxeak erortzen ari direla... Horri nola heldu pentsatu behar dugu. Batzukek ezintasuna sentitzen dute gai potoloa delako, baina egin daiteke. Udalarekin eta instituzioekin ados jarriz eta proiektu zehatzak martxan jarriz.

Sugoi: Etsipenean erortzeko joera handia dago eta horri buelta eman behar diogu. Ez du kanpoko beste inork egingo, guk egin behar dugu!

Eta orain da momentua, oraindik herriak bizirik daudela...

Rafa: Bai, denbora pasa ahala geroz eta zailagoa izango da.



Herrien garapenerako bestelako egitasmoak ezagutzeko mahai-ingurua


Larraunen gertatzen ari dena beste hainbat ibarretan ere gertatzen ari da eta zenbait tokitan dagoeneko hasi dira lanean. Egitasmo ezberdinak jarri dituzte martxan eta batzuk euren fruitua ematen hasiak dira. Errealitate eta proiektu horiek ezagutzeko mahai-ingurua antolatu du Larraun Bizi taldeak datorren apirilaren 13an, arratsaldeko 18:30ean, Lekunberriko batzar aretoan. Bertan izanen dira Aizarotz eta Zeraingo bizilagunak bertan aurrea eramandako proiektuak aurkezten.

Baraibarren eta Azpirotzen dagoeneko Kontzejuarenak diren etxe bana berritzen hasi dira alokairuan jartzeko

BARAIBAR.

Baraibarren Eskol-etxea berritzen ari dira. 1985. urte inguruan eraiki zen frontoiarekin batera. Beheko solairuan garai bateko eskola dago bere kapera eta guzti eta goian garai batean mojen etxebizitza zegoen. Ondoren, urte luzez eraikin hori udalekuetarako erabili zen eta zenbait familia bizi izan dira bertan, baina azken urte hauetan hutsik egon da. Mikel Huarte, Baraibarko Kontzejuko lehendakaria: "Legegintzaldi honen hasieran, Larraungo Udalak kontzejuei emandako dirulaguntza batekin batera, 20.000 euro gastatu genituen hemen sukaldea eta lurra berritzen, paretak margotzen eta berogailua jartzen. Etxebizitza oso handia da eta gure asmoa orain ate batekin zati bat ixtea da. Dena alokatuko dugun arren, horrela errazagoa izanen da berotzeko eta bi gela, sukaldea, komuna eta sala bateko etxebizitza txikiago bat geldituko da. Orain gure asmoa komuna berritzea eta leiho berririk jartzea da.

Nire ustez, Larraungo herrietan bizi nahi duenari gutxienez aukera eman behar zaio. Hau alokatzearekin gure helburua ez da lehenbailehen hemen gastatutako dirua berreskuratzea, guk nahi duguna herrira jende berria etortzea da eta bertan bizitza egitea. Ez dut horren zaila ikusten jende gaztea erakartzea. Momentu honetan nahiko herri bizia da gurea, herritarrak elkartzen gara eta ume dezente ditugu Baraibarren. Larraungo Kontzejuetan, hutsik dauden etxeak betetzea lehenetsi beharko litzateke, berriak egiten hasi aurretik. Borondatea da behar dena bai Kontzejuen aldetik eta baita Udalaren aldetik. Guk posible izan dugu, baina egia da beste kontzeju askok ez dutelako halako aukera ekonomikorik edo beste lehentasun batzuk dituztela".



AZPIROTZ.

Azpirotzko Kontzejuak ere etxebizitza bat berritzeko proiektua martxan jarri du. Intxaur-Txulo etxearen azkeneko solairuan 65 metro karratu inguruko etxebizitza egokituko dute bertan alokatzeko. Beheko solairuan herriko elkarte dago, erdian Kontzejuko sala eta goian etxebizitza izanen da. Joxe Migel Etxetxikia, Baraibarko Kontzejuko lehendakaria: "80.000 euroko kostua izango du honek. Etxebizitza txiki bat izango da. Gure asmoa alokairuan jarri eta jendea animatzea da. Ongi ateraz gero, goialdean dagoen beste herriko etxea berrituko dugu eta ea horrela pixkanaka partikularrak ere animatzen hasten diren. Bada herri txikietan bizitzeko prest dagoen jendea. Lezaetara hiru familia etorri berri dira, bost ume daude, seigarrena jaiotzeko bidean. Hemen arazoa etxeen prezioa da, oso garesti daude.

Azpirotzen zortzi etxe daude huts-hutsik eta gainerako askotan pertsona bakarra bizi da. Denok ikusten dugu herri hauek bukatzera doazela. Larraungo Udalak hemen bertan, herriaren sarreran eroritako etxe baten orube bat du. Hori promozionatu egin beharko lukete. "Guk proiektu honekin probatzea erabaki dugu eta ikusiko dugu!".

Baraibarren Eskol-etxea berritzen hasiak dira eta Azpirotzko Kontzejuan dagoeneko prest dute Intxaur-Txulo etxeko ganbaran etxebizitza egiteko proiektua. Arg: Labrit.

INAUTERIAK

Bukatu dira!

Gaintzako inauteriekin amaitu da eskualdeko herriz herriko mozorro festa. Joan den martxoaren 3an ospatu zituzten Gaintzan inauteriak. Urtero egin ohi duten etxez etxeko puska-biltzarekin berotu zituzten barrenak eta girotu zituzten kaleak. Elkarrean afaldu eta gero, goizaldera arte luzatu zen parranda. Horra hor aurten jaso ditugun zenbait irudi!



LITERARTUR SOLASALDIA MIREN AGUR MEABEREKIN

Euskara Zerbitzuak literatura solasaldia antolatu du datorren maiatzaren 8rako. Miren Agur Meabe idazle lekeitiarrarekin bere bi lanen gaineko mahai-ingurua

eginen dute, "Zisnea eta Uhartea" eta "Tangoa noizean behin". Hitzordua, maiatzaren 8an izanen da arratsaldeko 18:00etan, Larraungo AEK euskaltegian.

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LÖREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADI!!! TLF BERRIA:
948 51 30 32

panaderia okindegia
GALBURU eco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42


BARDOAK

Leitzarrak garaile Lekunberrin
jokatutako 2018ko Bardoetako finalean

Bardoetako bigarren fasera sailkatzea lortu zuten aurten '(Larraun da Araitz) Bi dozena' taldeak, baina bigarren buelta honetan izandako bi saioetan Lesakako 'Unibertsolariak' taldekoak gailendu zitzaizkien eskualdeko bertsolariei. Aldazko Martixa elkartearen jokatu zuten bigarren faseko lehen saioa eta Lesakan bigarrena. Joan den martxoaren 24an jokatu zen finala ordea, gertutik jarraitzeko aitzakiarik ez ge-

nuen izan. Lekunberriko Toki Alai sagardotegian jokatu zen saioa. Bertan norgehiagoka aritu ziren Leitzako 'Aldatzea komeni', Baztan eta Malerrekako 'Addams familia' eta Lesakako 'Unibertsolariak' eta azkenean leitzarrentzat izan zen 2018ko Bardoetako talde txapeldunaren titulua. Saioaren ondotik sagardotegian bertan eskainitako afari eder baten bueltan elkartu ziren bertsozaleak.

POESIA SARIA

Alfonso Gomez Poncek Angel
Urrutia Poesia Saria jaso du

25 poesia lan aurkeztu ziren azkeneko Angel Urrutia Poesia Sarietan eta joan den hilean Ayestaran Hotolean egin zen ekitaldian eman zioten saria Albaceteko Alfonso Gomez Ponce idazleari. *Periscopio* du izena saritutako lanak eta epaimahaiak poesia lan horretan erabiltako tonu baikorra eta kritikoa na-

barmendu zuen. "Gaur egungo gaiak modu errealistan lantzen ditu, nahiz eta ikuspuntu artistikoa ere agerian gelditzen den". Inatxi Galarza, Angel Urrutiaren alargunaren eskutik jaso zuen saria eta ekitaldia girotzen izan zen urtero bezala Lekunberriko Jesus Jaimerena Abesbatza.

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO
ELKANO
S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

“Ezinbestekoa iruditzen zaigu, bai eskolan eta bai etxean, gaztetxoek mezu berdina jasotzea”

Urte osoan zehar nerabeei eta helduei eskainitako hainbat jarduera eta formakuntza ikastaro antolatzen ditu Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak. Iosune Zabala teknikariak azkeneko ekimenen berri eman digu.

Martxoaren 8a pasa berri den honetan, Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan ere eraso sexisten kontrako kanpaina bat egin duzue...

Bai. Beteluko inauterietan eskumuturreko batzuk prestatu genituen “Erasorik ez!” leloarekin eta frontoian egin ohi den herri-bazkarian banatu genituen, inauterietan denek eskumuturrekoa eramanda kontzientziazioa bultzatzeko. Kartel batzuk ere jarri genituen herrian zehar eta orain gure asmoa eraso sexistei buruzko zine-foruma antolatzea da. Batzorde bat sortu genuen ekintza horiek bideratzeko. Haraneko zenbait gaztetxok eta zenbait udal ordezkariak eta herritarrek ere parte hartu zuten eta gure asmoa batzorde horretan lanean jarraitzea da.

Azken urteotan bezala, aurten ere sukaldaritza tailerra egin duzue, ezta?

Bai, Araitz eta Beteluko gaztetxoekin sukaldaritza ikastaroa egin genuen Betelun. Hasiera batean Gaintzan egitea genuen aurreikusita, Kultur astearen baitan, baina egun hartan elurra egin zuen eta bertan behera gelditu zenez, Beteluko elkartearen burutzea erabaki genuen.

Eta nork zuzendu zuen?

Javi Trapero altsasuarra arduratu zen. Bera gizarte hezitzailea da, lan asko egin du gazteekin, baina horrez gain hamaika zaletasun ditu, sukaldaritza, argazkigintza... Gu beti saiatzen gara tailerretan hainbat gauza lantzen, berdintasuna, euskara, aisialdi osasuntsua... Kasu honetan, tailerraren hasieran euskara erabiltzearen garrantziaz hitz egiten aritu ziren eta otordu bat

prestatzen ikasi eta denak elkarrekin afaldu eta gero, alkoholik gabeko koktelekin amaitu zuten.

Aurten izotz pista saltoengatik aldatu zenuen...

Bai. Lekunberri eta Larraungo gaztetxoekin Iruñeko Salting pabiloira joan ginen. Saltoka ibiltzeko leku bat da eta gaur egungo gazteei asko gustatzen zaie. Joan den urtean beraiek aurkeztutako proposamenetako bat izan zen. 60 lagun joan ginen Aste Zuria aprobetxatuz eta ederki pasa genuen.

Eta ur festa?

Ur festa joan den hilean egin genuen Lekunberriko igerilekuan. Hamabi eta hamalau urte artekoiei zuzendutako jardue-



“Beti izaten dira tailerraren ondotik, adituarekin harremanetan jartzen direnak”

ra zen. Araitz eta Betelutik 20 lagun inguru igo ziren antolatutako autobus txiki batean eta guztira 60 pertsonak parte hartu zuten. Ekintza hauek guztiak gaztetxoei zuzendutako Aisialdi Programaren barruan egiten ditugu Euskara Batzordearekin elkarlanean. Aisialdi osasuntsua eta euskalduna eskaintzea da helburua.

Baina helduei zuzendutako tailerrek ere antolatzen dituzue...

Bai, joan den hilabetean hasi ginen gurasoei zuzendutako formakuntza tailerrek. Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Guraso Elkarteekin batera urtero familientzako programazioa antolatzen dugu. Lekunberrin

Mankomunitateko
Gizarte Zerbitzuak
urtero antolatzen ditu
gurasoei eskainitako
formazio ikastaroak.
Arg: Labrit.



hilean behin elkartzen gara Nerea Mendizabalekin. Bera psikopedagogoa eta hezitzailea da eta errespetuzko komunikazioa eta haurren autoestimua lantzen ari gara berarekin. Hurrengo saioa apirilaren 23an izanen da eta seme-alabak zertan babesten ditugun gehiegi eta zertan ez diegun ematen behar adina autonomia ikasiko dugu. Eta maiatzaren 28an haurrekin heriotzaz nola hitz egin aztertuko dugu. Bi saioak 15:15etik 17:15era izanen dira Lekunberriko Ibarberri ikastetxean.

Eta Betelun zer eskainiko duzue?

Betelun drogen eta alkoholaren gaia landuko dugu, heziketa prebentzioa, bai familiekin eta baita DBHko ikaslee-kin ere. Gurasoei zuzendutako tailer horren saioak apirilaren 17an eta 24an eta maiatzaren 8an, 15ean eta 22an izanen dira eguerdiko 15:00etatik 16:30era.

Sare sozialen gaia ere lantzeko asmoa duzue...

Bai, Betelun bigarren tailerra ere prestatu dugu saio bakarrekoa, baina hau ere gurasoekin zein gaztetxoekin landuko da. Bakeola elkarrekin sare sozialek dituzten arriskuak eta onurak landuko ditugu eta tresna horiek ongi erabiltzearen garrantziaz arituko gara.

Hitzaldi hori maiatzaren 29an izanen da, 15:00etatik 16:30era.

Drogen inguruko kezka azken aldian handitu egin da ala konstante mantentzen den kontua da?

Orokorrean eskualde osoan dagoen kezka da eta egia da arduraturik gaudela gaztetxoaren artean gertatzen den alkoholaren kontsumoarekin. Saia-tzen gara sentsibilizatzen, ahalik eta beranduena has daitezen eta ahalik eta gutxien edan dezaten. Gai hori Lekunberri hiru urtez landu dugu eta Beteluko Guraso Elkarteko kideei ere interesgarria iruditu zitzaion.

Zer moduzko erantzuna jasotzen duzue helduen aldetik?

Gorabeherak izaten dira. Araitz-Betelu esaterako, eskualde txikia da eta batzuetan bederatzi pertsona joaten dira eta badakigu familia gehiago daudela baina joaten direnek asko eskertzen dute. Behin pedagogia sistemikoa landu genuen eta ia-ia 30 familiak parte hartu zuten. Guk

gurasoei aurkezten dizkiegun gaiak gaztetxoekin ere lantzen ditugu, alkoholaren eta drogen kontsumoa, errespetuzko harremanak, sare sozialen erabilera egokia etab. Ezinbestekoa iruditzen zaigu bai eskolan eta bai etxean mezu berdina jasotzea.

Familiek Gizarte Zerbitzura askotan jotzen dute ala oraindik kostea egiten zaie?

Bai, egia da kostea egiten zaiela, baina bestalde, formakuntza ikastaro hauek ongi etortzen dira esaterako tailerraren amaieran hizlariari euren zalantzak galdetzeko edo telefono zenbakia eskatzeko. Beti izaten dira tailerraren ondotik, parte hartu duen adituarekin harremanetan jartzen direnak euren egoera pertsonala lantzeko. Hori errazago egiten zaie Gizarte Zerbitzuetara jotzea baino. Eta formakuntza ikastaro hauek zubi lan hori egiteko ere baliagarriak dira. Baina jakin dezatela Gizarte Zerbitzuan urte osoan familia eta prebentzio gaiekin laguntzeko prest gaudela.

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

OKM
ABOKATUAK
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

50 korrikalarik parte hartu dute XXX. Lekunberriko Legoa

Martxoaren 24an Arruizko Txikitoren omenezko Legoa izan zen Lekunberriin. Lasterketaren XXX. Urteurrena izan da aurtengoa eta lehen aldiz larunbatarekin antolatu zuten proba. Gizonezkoetan inoiz baino alde txikiagorekin iritsi ziren helmugara lehen bi lasterkariak, Aimar Bouziani (00:19:33) eta Raul Amatriain (00:19:36). Podiumean hirugarren postua Raul Gomezentzat izan zen (00:20:02). Emakumezkoetan aldiz,

Majima Maayouf izan zen azkarrena 21 minutu eta 20 segundorekin eta bere atzetik sailkatu ziren Sara Alonso (00:22:26) eta Maialen Muñoz (00:23:47). Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, 50 lasterkarik parte hartu zuten proba nagusian, horietatik 26 eskualdekoak. Aurretik haurren proba jokatu zen eta guztira 50 neska-mutikok egin zuten korrika txikienentzat prestatutako proba ezberdinetan.



ESKUALDEKO KORRIKALARIEN SAILKAPENA

00:20:54 XABIER SATRUSTEGI GARZIA ,BETELU

00:21:39 ISAAC ALVAREZ CARPINTERO LEKUNBERRI

00:21:50 ANDER ARRAZTIO SARALEGI BETELU

00:22:53 MIKEL IJURKO SARALEGI LARRAUN

00:22:57 IVAN GONZALEZ LEKUNBERRI

00:23:43 JOSEBA ASTIZ LEKUNBERRI

00:23:59 IÑIGO LASARTE GARCIA LEKUNBERRI

00:24:25 IMANOL JAKA NAVARRO LARRAUN

00:24:56 AIMAR AZPIROTZ ARRUITZ

00:24:57 IOSU OREJA ARRATIBEL ERRAZKIN

00:26:01 OLATZ GONZALEZ GLARIA LEKUNBERRI

00:26:31 UNAI IJURKO UITZI

00:27:25 ASIER ELETA LOPEZ LEKUNBERRI

00:27:32 AITOR GOIKOETXEA BETELU

00:28:05 AITOR ZABALETA BALEZTENA LEKUNBERRI

00:28:17 XABIER ZAMARGILEA LEKUNBERRI

00:26:01 OLATZ GONZALEZ GLARIA LEKUNBERRI

00:26:31 UNAI IJURKO UITZI

00:28:24 ANDREA ECHARRI ZABALETA ARRUITZ

00:28:24 SUGOI ECHARRI ZABALETA ARRUITZ

00:28:39 UNAI ZABALETA LEKUNBERRI

00:29:34 ARANTZA MAULEÓN PENA LARRAUN

00:31:34 JOSEBA MERINO LEKUNBERRI

**M. Angeles
Urrizalki**

**iragarkiak,
berriak,
eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario
de Navarrako Korres-
pentsala**

**948513056
699179437**

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etkez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

**BERTAKO
HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako platerak.
Ettxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.

Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com



Araxes Herri Kirol Klubeko haurren taldea bigarren Nafarroako Txapelketako finalean

Joan den hilaren lehen asteburuan, Nafarroako Kirol Jokoen Herri Kirol Txapelketako jardunaldietako bat jokatu zen Betelun. Araxes Herri Kirol Taldeak beste urte batez Txapelketa horretan parte hartu du. Jardunaldi hartan hiru mailatan aritu ziren lehian bertakoak, Kimuen mailan, Artzanegi taldearekin batera, haurren mailan eta kadeteen mailan Antsoingo eta Berriozarreko jokalariekin batera osatutako taldean.

Martxoan zehar, beste bi kanporaketetan ere parte hartu dute, Antsoingen eta Beran. Hiru taldeek lan ona egin arren, aurten haurren taldea soilik sailkatu zen finalerako eta 2. postua eskuratu zuten proba konbinatuetan.

2012an hasi zen Araxes Herri Kirol taldea txapelketetan parte hartzen eta geroztik 18 sari irabazi dituzte. Hilabete honetan, Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketari ekingo diote. Zorionak eta zorte on!

HAURREN PROBETAKO SAILKAPENAK

BENJAMINAK (mutilak):

- 1.-Aitor Balda 00:02:29
- 2.-Ekaitz Zabaleta 00:03:31
- 3.-Oihan Ijurko 00:03:33

ALEBINAK:

Neskak:

- 1.-Maiane Arretxea 00:07:24
- 2.-Ohiane Galbarra 00:07:49
- 3.-Maddi Martinez 00:08:06

Mutilak:

- 1.-Joar Merino 00:06:45
- 2.-Ioritz Dorransoro 00:06:57
- 3.-Aitor Etxaber 00:06:58

INFANTILAK (mutilak):

- 1.-Adrian Martinez 00:10:05
- 2.-Iñaki Rekalde 00:10:13
- 3.-Joanes Apezetxea 00:10:52

KADETEAK (mutilak):

- 1.-Angel Ayestaran 00:15:37



**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

Lontxo
Otamendi
Artola



Nola kontrola dezakegu gure jateko gogoia edo apetitua?

Askotan, ez dugu kontrolatzen jaten duguna eta behar baino gehiago jaten dugu, gosarik gabe eta arrazoirik gabe. Pertsona askoren arazoa desordena izaten da. Egunean zehar lana dela, presa dela... ez dute behar bezala jaten eta arratsaldea iristean, lasaitasun horrek jatera bultzatzen du, eta gehienetan komeni ez diren jakiak izaten dira. Askotan antsietatearekin jaten da eta behar duguna baino gehiago. Arrazoi asko daude, baina gaurkoan aserik mantenduko gaituzten elikagai batzuk aurkeztuko dizkizuet.

•**Zuntz asko dituzten elikagaiak.** Zuntzak asko asetzen gaitu, bi arrazoiengatik: batetik, odol-leko glukosa modu egonkorrean

mantentzen laguntzen du, gora-beherarik egon ez dadin. Horrela energia poliki-poliki erabiliko dugu, eta honek ase mantenduko gaitu. Bestetik, gure urdailean leku dezente okupatzen du, izan ere, ur asko xurgatzen du eta honek ere ase mantentzen gaitu. Honako hauek dira azpimarragarrienak: oloa, lihoa, ilarrak, aranak, fruitu lehorrak... besteak beste.

•**Ur asko duten elikagaiak.** Hidratatuak mantentzen gaituzte eta gure apetitua kontrolatzen dute. Ura, meloia, sandia, laranja, barazkiak, moluskuak, arraina, onddoak...

•**Proteinan aberatsak direnak.** arrautza, oilaskoa, haragia, jogurtak, gazta...

•**Oso garrantzitsua da baita elikagaiak murtxikatzea.** Digestioko lehen prozesua da, eta honek pure batek edo likidoek baino lan gehiago ematen digu.

•**Elikagai beroak.** Plater bero batek gehiago asetzen gaitu. Kafe edo infusio bat hartzea aukera ederra da.

•**Kirola egitea.** Askotan asper turik egoteak gehiago jatera bultzatzen gaitu.

Harremanetarako

608 32 19 05

neresotil@gmail.com

San Anton kalea, 12 (Iruña),

La ventana natural
belardendan.



EL TIEMPO 14 DÍAS



Eguraldiaren aldaketak nagusi izan ditugun egun haueetan, gaurko aplikazioa oso erabilgarria izan daiteke. *El tiempo 14 días* du izena eta eguraldiaz informata edukiko gaitu beti. Bakoitzak bere mugikorreko aplikazio dendetik jaitsi ondoren (AppStore, PlayStore ...), instalatu eta erabiltzeko prest edukiko dugu. Behin irekita, mugikorren kokapena erabiltzeko baimena eskatuko dugu eguraldiaren datu zehatzak emateko. Zure kokapenez gain, beste edozein leku bila dezakezu eguraldia jakiteko.

Datuak egunez egun edo orduz ordu ematen ditu tenperatura, eguraldia... erakutsiz. Radarren eta sateliteen datuak zuzenean erakusten ditu baita alerta ezberdinak ere. Gainera mugikorra blokeatuta da goenean, eguneko eguraldiaren laburpen txiki bat egiten informaturia egon zaitezten.

Xanti Saigos

Ibarberrin dagoeneko bete dituzte lehen bi ametsak!

Patioan animalia batzuk eta jostailu eta estalpe gehiago izatea, jaialdientan txokolate beroa hartzea, musikako klase gehiago eta zenbait azterketarik gabeko eskola batekin ere amestu dute. Horiek dira Ibarberriko ikasleen artean bildutako zenbait amets.

Ikas-komunitatearen proiektua onartu eta gero, guraso, udal ordezkari, irakasle zein ikasleekin osatutako batzordea martxan jarri zuten komunitateko kideek nolako eskola izan nahiko luketen ezagutzeko. Nerea Labayen zuzendaria: "Aste oso batez Lekunberriko gune publikoetan buzoiak utzi genituen eta Larraungo gainerako herrietan ere ibili da postontzia autobusarekin batera. Amets pila bat jaso dira, erretiratu-etxean asko bildu ditugu eta baita udaletxeetan ere". Amets horik guztiak dagoeneko ikastetxeko sarreran daude ikusgai.

Joan den hilean ametsen bilketari amaiera emateko festa izan zuten. Maila bakoitzeko ikasleek zituzten ametsetako batzuk publiko egin ondoren, lehenengo bi ametsak egikari-



tu zituzten. Ikasle askok hainbestetan desiratutako goxokiak izan zituzten eta bina buruhandi sartu ziren eskolara, sorgina eta Tartalo. Nerea: "Mota askotako ametsak bildu ditugu. Askok jangelan aldaketak eskatzen dituzte, beste batzuek DBH-ko 3. eta 4. maila bertan eskaintzea amesten dute, patioa moldatuko luketenak ere asko izan dira..."

Aste Santuetako oporren ondotik, berriro ere batzordea lanean hasiko da. Jasotako amets horik guztiak sailkatu egin beharko dituzte eta pixkanaka beste batzorde batzuk sortuko dira amets horiek egikaritzen hasteko.

Nerea: "Hemendik ikasturte amaiera bitarte gehien bat antolaketari ekingo diogu. Badaude amets batzuk, umeenak batez ere, erraz egin daitezkeenak. Baina, adibidez, askok patioan aldaketak eskatu dituzte. Egia esan, zementuzkoa da dena eta nahiko triste dago, hor lana izango dugu! Pozik gaude jasotako emaitzarekin eta hemendik ikasturte amaiera bitarte badugu nahikoa zeregin!".



Ibarberri ikastetxeko sarrera amets ez bete dute

Egoitz Oreja Altuna

Apirilaren Sean, 9 urte.
Urte askotako pottoko!! Ea zenbat sorpresa ekartzen ditton zure eunek; ongi pasa!!! Muxu haundi bat etxeko guztin partez.



Oihana Aldaregia

Apirilak 23. Asko gozatu zure egunean!! Zorionak eta muxu handi bat zure kuadrillaren partez.

Elaia Iriarte Olano

Apirilak 20, urte bat.
Zorionak pottokita!!! Segi horren alaitsu.
Muxu handi bat Enaitz, amatxo eta aitatxoren partez.



Kontxi Liciaga Zatarain

Apirilak 30
Zorionak amona!!
Muxu bana Alain, Jone, Jakes, Aiur eta Arturo.



Ione Iriarte Olabarria

Martxoak 30.
Zorionak zure 13. urtebetetzean!
Orain arte bezain maitakorra izaten jarrai dezazula.
Asko maite zaituen familiaren partez. Muxuak!



Irati eta Arrate Munarriz Oiz

Martxoaren 17an, 7 urte eta otsailaren 20an, 4 urte.
Zorionak gure politte!
Irrifar polit horiek ez itzazuela galdu!
Muxu pottolo bana aitatxo eta amaxoren partez.



Maren Elordi Ilarregi

Apirilaren 10ean, 3 urte.
Zorionak Maren! Gure etxeko txikia, "Handitzen-handitzen ari zara handitzen..."
Jarraitu hain politta, bizkorra eta alai.
Ongi-ongi pasa zure urtebetetze egunean.
Familia guztiaren partez. Muxu potolo bat.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU BAR

ETXKO PIZZAK,
KOPA BEROZIAK

948504352

MAILOPE!
GUNDU MAILO
LAGU

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gllarraun@gmail.com

KONTU TXIKIAK

AURTEN ERE, ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO KANPAINA ABIARAZI DUTE ARAIZKO ETA LARRAUNGO UDALEK, UEMAREKIN ELKARLANEAN

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, bertako kide diren udalekin elkarlanean, errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina jarri du abian aurten ere.

Kanpaina berri honekin, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskarazkoak izan daitezen bultzatu nahi da. Bide horretan, errenta aitorpena euskaraz eginda euskarari bide berriak irekitzeaz gain, administrazioaren euskalduntzea ere bultzatzen da. Hizkuntzaren normalizazioa lortzeko euskara eremu guztietara hedatu behar da eta, horretarako, garrantzitsua da herritarrek euskaraz osotasunean bizitzeko hautua egitea. Udalerri euskaldunetako herritarrok eredu eta aitzindariak izan gaitezke horretan.

Ohi bezala, aurten ere, errentaren gaineko aitorpena egiterakoan, zergadunek hainbat bide dituzte euskaraz egiteko, eta oso modu errazean gainera: lehen urratsetik zein hizkuntzatan egin nahi duten aukera dezakete, hau da, euskaraz egiteko ez dago inolako zailtasunik.

Urtez urte, gero eta gehiago dira errenta aitorpena euskaraz egiteko hautua egiten duten herritarrak. Euskararen normalizaziorako bidean ematen ari garen beste pauso bat da hau. Baina, pauso handia eta sendoa izan dadin, herritarren babesa eta parte-hartzea beharrezkoa da. Euskarak merezi duen lekua izan dezan egunero behar baitu gu guztion zaintza.

IRAGARKI TAULA

Bidali zure heriotz-agurra mailope@labrit.net e-postara edo dei ezazu 638 652 339 telefono zenbakira eta agurtu itzazu zendatutakoak aldizkariaren bitartez. (Dohako zerbitzua).

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARBEONDO **HARATEGIA**
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

**aitz
berri**

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

APIRILA

3 | LEKUNBERRI:

Txokolipuinak, 5 eta 7 urte bitartekoei zuzendutako ipuin kontalaria arratsaldeko 16:30ean Mitxausenea Kultur Etxean.

17 | BETELU:

Heziketa prebentzioa, alkoholaren eta Drogen kontsumoari buruzko tailerra, arratsaldeko 15:00etan Araxes ikastetxean.

23 | LEKUNBERRI:

Txokolipuinak, 5 eta 7 urte bitartekoei zuzendutako ipuin kontalaria arratsaldeko 16:30ean Mitxausenea Kultur Etxean.

23 | LEKUNBERRI:

Seme-alabei zertan behar adina autonomia eman eta zertan babestu ikasteko tailerra, arratsaldeko 15:15etan Ibarberri ikastetxean.

24 | BETELU:

Heziketa prebentzioa, alkoholaren eta Drogen kontsumoari buruzko tailerra, arratsaldeko 15:00etan Araxes ikastetxean.

MAITZA

8 | LEKUNBERRI:

Literatura solasaldia Miren Agur Meaberekin, arratsaldeko 18:00etan Larraungo AEK euskaltegian.

8, 15 eta 22 | BETELU:

Heziketa prebentzioa, alkoholaren eta Drogen kontsumoari buruzko tailerra, arratsaldeko 15:00etan Araxes ikastetxean.

26 | AZKARATE:

Bertso afaria Balerdi elkartearen, 21:30ean, Maialen Lujanbio eta Julio Sotorekin.

28 | LEKUNBERRI:

Haurrekin heriotzaz nola hitz egin ikasteko tailerra, arratsaldeko 15:15ean Ibarberri ikastetxean.

29 | BETELU:

Sare sozialen erabilera egokiari buruzko hitzaldia, arratsaldeko 15:00etan Araxes ikastetxean.

AGENDA

SALGAI

Pisu berriua salgai Betelun. 90 m²-ko etxebizitza, igogailuarekin, hiru logela (horietako bi balkoiarekin), bi komun, saloia miradorearekin, sukaldea terrazarekin eta garaje itxia. Harremanetarako: 699 348 975.

Txabola saltzen da. 6x2,5 metro karratuko txabola, suarekin, mahaiarekin eta ohearekin.
(Vicente 662 565 636).



BESTERIK

- Betelun azaroaren bukaeran urrezko lepokoa eta zintzilikarioa aurkitu ditugu. Jabeak deitu dezala 606 375 855 mugikor zenbakira.

- Collie arrazako bi txakur oparitzen dira. 5 hilabete dituzte. Ongi zainduko direnaren baldintzarekin emango dira. 629 403 220 (Iñaki).

MERCATU TXIKIA

Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA
- HARATEGIA -

PATXI GALARZA
Astelehenerik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00

Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34





*pausoka pausoka
bagoaz aurrera
poliki-poliki
betez gure ametsak*

